Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Julen Idarreta Cardona

Oiartzun, Gipuzkoa (1990)



Aurkibidea

Biografia



Julen Idarreta Cardona oiartzuarra da. 1990eko urriaren 12an jaioa, Oiartzunen bizi izan da beti. Ama oiartzuarra du eta aita, aldiz, donostiarra. Hiru senidetan zaharrena da bera, eta Lizentziatura du Hezkuntza Fisikoan. Master bat bukatzen ari zen elkarrizketatu genuenean, eta judo irakasle eta entrenatzaile moduan eskolak ematen aritzen da Donostiako Amara auzoan. Judo irakasle moduan haur zein helduekin dabil Julen eta jarduera horri lotutako eta beste hainbat kontuez dihardu, Asier Retegi koadrilako lagunarekin egin genion elkarrizketan.

Zintak

OIA-117

- **Proiektua**: Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazkin, Aitor
- **Data**: 2014-10-18
- **Iraupena**: 112 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Errazkin, Aitor

Pasarteak

1. Hizkuntza aldatzea kosta

- **Erref**: OIA-117/006
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:06:56. **Bukatu**: 00:08:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Juleni gertatu izan zaio ezin mintzatzea inguruak espero duen hizkuntzan, inguru horretan bertan dagoen norbaitekin aurrez eraikiak dituen hizkuntza ohiturak direla eta. Bestalde, ingurua edozein dela ere, Julenek euskaldunik gertuan sumatzen badu, beti pizten zaio hari euskaraz egiteko premia moduko bat.

2. Euskaraz ez dakienik kuadrillan sartzerakoan

- **Erref**: OIA-117/007
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:08:52. **Bukatu**: 00:10:14

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Lagunarte euskaldunera euskaraz ez dakienik sartzen denean suertatu ohi den egoerari buruz. Julenek kontatzen du arreba baten lagun belentziarra etxera oporretan joan zitzaienekoa.

3. Oiartzun herri euskalduna

- **Erref**: OIA-117/009
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:10:37. **Bukatu**: 00:11:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:
Oiartzun euskalduntzat dute Julen eta Asierrek. Asierren ustez, aldea suma daiteke hizkeran auzotik auzora, diferentziak txikiak izan arren.

4. Iturriotz auzoan emakumeak noka

- **Erref**: OIA-117/010
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:11:54. **Bukatu**: 00:13:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Izango da, bestela ere, Oiartzunen noka egiten duen emakumerik, bistan da, baina Iturriotz auzoan sasoiko da emakumeen arteko hiketa.

5. Euskaraz bizi

- **Erref**: OIA-117/011
- **Iraupena**: 0:03:52. **Hasi**: 00:13:42. **Bukatu**: 00:17:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Asier euskaraz bizi da ia %100ean, Oiartzundik irtetea gutxi tokatzen baitzaio gaur egun. Julenek Donostian egiten du lan, eta maiz samar tokatzen zaio gazteleraz egitea. Donostia euskalduntzen ari dela dio, baina era berean, euskaraz normaltasunez egin nahi izatetik oso urrun dagoen jendea ere ikusten du.

6. Euskara lantokian

- **Erref**: OIA-117/012
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:17:34. **Bukatu**: 00:19:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Judo eskolak emateko garaian buruhausteak izaten ditu Julenek hizkuntza kontuekin.

7. Kuadrillako hizkuntza joerak

- **Erref**: OIA-117/013
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:19:53. **Bukatu**: 00:22:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Orokorrean euskaraz aritzen dira kuadrillan Asier eta Julen, baina mintzagai duten gaiaren arabera, gerta liteke gaztelerara jotzea.

8. Gazteleraren menpe bizi gara

- **Erref**: OIA-117/015
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:24:31. **Bukatu**: 00:25:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Egunerokoan euskara hutsean jardun nahi izanagatik ere, ezinezkoa da ia. Gazteleraren presentzia uneorokoa da eta eragina handiegia.

9. Bertsolaritzaz eta herri kirolez ezin gazteleraz jardun

- **Erref**: OIA-117/017
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:26:29. **Bukatu**: 00:28:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Asier txikitan ez zen batere bertsozalea. Gaur egun, izatekotan, korte zaharreko bertsogintza maite du; egungoa txukunegia iruditzen zaio, finegia. Julen bertsotan ibilia da, haurra zela; utzi egin zuen gero, eta gaur egun damutu egiten zaio.

10. Esamolde eta irain batzuk

- **Erref**: OIA-117/019
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:29:20. **Bukatu**: 00:31:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Koadrillan ohikoak dituzten esamolde eta irain batzuk aipatzen dituzte Julenek eta Asierrek.

11. Goitizenak jaiotetxearekin bat

- **Erref**: OIA-117/020
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:31:45. **Bukatu**: 00:33:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:
Garai batean jaiotetxearen izenetik jartzen zitzaion jendeari goitizena. Egun, galdu egin da ohitura hori, eta abizenetik edo izen deituren laburduratik deitzen dio jendeak elkarri.

12. Hitanoa familia barruan

- **Erref**: OIA-117/024
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 00:40:37. **Bukatu**: 00:44:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Asierrek eta Julenek nabaritzen dute emakumeek hika aritzeko joera txikiagoa dutela. Zergatiak zein ote diren eztabaidan ari dira, eta bakoitzak etxean sumatutakoen haritik tiraka ari dira.

13. Hitanoak zer eskaintzen dion hiztunari

- **Erref**: OIA-117/027
- **Iraupena**: 0:03:59. **Hasi**: 00:49:03. **Bukatu**: 00:53:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Tratamendu informalak zer eskaintzen dien galdetuta bere iritzia ematen du bakoitzak. Julenek dio oraindik ez dela seguru sentitzen hika egiten duenetan. Asierren esanetan, euskararen erregistro informaleko berariazko tratamendua da.

14. Joxan Tolosa zuka mintzatzen?

- **Erref**: OIA-117/031
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:59:15. **Bukatu**: 01:00:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Joxan Tolosaren pasadizoa aipatzen dute Asierrek eta Julenek.

15. Aitak eta osabak elkarri hika

- **Erref**: OIA-117/034
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 01:03:53. **Bukatu**: 01:05:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Hiztunen artean adin tarte handia izanagatik ere, elkarri hika egiten dioten kasuei buruz.

16. Beste euskalkietako hitzak

- **Erref**: OIA-117/047
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 01:21:02. **Bukatu**: 01:22:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Norbere herritik kanpora esaten diren hitzak ulertu eta ikasteari buruz.

17. Patata zorroaren anekdota

- **Erref**: OIA-117/058
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 01:37:53. **Bukatu**: 01:38:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Julenek izebari behinola Bartzelonan gertatutakoa kontatzen du.

18. Hizkuntzak ongi menperatzea helburu

- **Erref**: OIA-117/064
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 01:46:21. **Bukatu**: 01:47:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:
Julenen iritziz hizkuntza guztiak txukun eta behar den modura egitea garrantzitsua da, eta euskararekin, bada, are eta gehiago.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-26

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com